


Escurinduan ibilaldia




1) Hainbeste gauza ikasi ditut
ikasturtea bitarte,
ondorioa hemen dauzkadan
boletin hauek diote.
Hizkuntza eta Matematikan
hamar batekin fuerte
Gizarte eta Naturan ere
zortzi ta erdikin tente,
opor hauexek merezitako
lasaitasuna dakarte. (bis)

2) Garai honetan Tourra daukagu
burutik kendu ezina,
hau dela eta aurrean daukat
bi gurpileko makina,
ostadarraren koloreekin
koadrua da liraina,
eta gainera esertokia
eroso eta biguna,
guzti honekin kutsatua zait
bizikletarako grina. (bis)





- 3) Txirrinduakin abiatu naiz
ni ilusioz beteta,
errepidean ipinia dut
izugarrizko arreta,
igaro ditut Lazkao, Ataun
eta ondoren Kaxeta;
baina halere indar pixka bat
barnean daukat gordeta,
Lizarraustiko aldapa hori
oso gogorra da eta. (bis)
- 4) Kaxeta pasa eta hasi da
lehenbiziko igoera,
hemendik gora izango dira
makina bat gora-behera,
mendateraino ailegatzeko
oraintxe daukat aukera,
ez dut etsiko bide guztian
nik egingo dut aurrera,
Miguel Indurain nafarra eta
Chiappucciren antzera. (bis)
- 5) Mendate honen erdi aldera
estutuz noa gerria,
plato txiki ta pinoi handia
oraintxe dut ezarria,
baina bidean halako baten
zapaldua dut harria,
ezusteko hau gertatua zait
mingots eta mingarria,
momentu honetan negar malko da
lehenago nuen irria. (bis)
- 6) Horrexegatik nire bihotza
benetan dago goibela,
zer eginikan ez dut izango
jarraitzen badut horrela,
indartzeko nik hartu dut orain
txokolate ta pastela,
ta ohartu naiz janari hauek
eragina badutela,
mendate gaina gainditu baitut
onentsuenak bezela. (bis)
- 7) Isostarrekin ase dut orain
nik nedukan egarria,
eta beheraka ritmo bizi bat
oraintxe dut ezarria,
begitan hartuz Nafarroako
inguru zoragarria,
igaro ditut Etxarri eta
gero Altsasu herria,
era honetara ezagutuz
noa ni Euskal Herria. (bis)



8) Etxegarate igaro eta
orain Idiazabala,
txistu batean abiatu naiz
Indurain banintz bezala,
bide ertzean ni animatzen
dago jendetza zabala,
momentu hortan ospetsu gisa
hartu dut nire azala,
ez dakit ziur hura neu nintzan
edo zen nire itzala. (bis)

9) Bost kilometro eginda gero,
nire herrian barrena,
auleziz jota, txit nekaturik
daukadarik barrena,
Jazmin sorta ta musu emale
hortxe dadukat Maitena,
ederra dugu dudarik gabe
ospaeren hastapena,
ez dakit ziur erreala den
edo den irudimena. (bis)